

da
als

Osteguna, 2012/03/01

2005ean sutan jarri zituzten hainbat gertakizunek Frantziako bazter auzoak. Gertakizun haietan oinarrituta idatzi zuen 'Batzorde ikusezina' delakoak *Heldu den matxinada*, gertakizunen oinarrian zegoena sakon aztertuz eta gogoeta zorrotza nonahi eman litezkeen gizarte oinarriari hedatuz. Oier Gonzalezek eta Zigor Garrok ekarri dute euskarara, biak kartzela ezberdinetan preso egonik egin zuten lan, eta Txalaparta argitaletxeak kaleratu du. Oier Gonzalezekin batera aztertu dugu liburua.



Oraindik preso dagoen Zigor Garrok idatzitako hitzaurretik hartu ditugu hitz hauek:

Hauxe da irakurleak saio honetan aurkituko duena: sistema menperatzailearen uko erabatekoa, sakona, xeheki eta estilo dotore batez arazoitua. Ez dezala inork pentsa hala moduzko eskuorri bat daukanik begi aurrean. Ez eta ezeren tesi definitibo, edota mundu petral honen metafora totala ere. Hipotesi bat dela esan genezake, munduaren irakurketa filosofiko, politiko, teoriko, praktikoa, argi, ikonoklasta, heterodoxo eta gaurkotu bat, handikerianik gabe baina eutsiezineko pasio kutsagarri batez idatzia.

Heldu den matxinada

Batzorde ikusezina

Itzultzaileak: Oier Gonzalez eta Zigor Garro



2008an, frantziar polizia Tamac izeneko herrixkan zegoen komuna autogestionatu bat eraso zuen zortzi gazte atxilotuz. Hainbat sabotaje ekintza leporatu eta inolako frogarik gabe kartzelatu zituzten, 'terroristak' zirelakoan. Gertaera horien berri izan zuen Oier Gonzalez Bilbatuak Montpellierrren preso zegoenean:

Nola iritsi zen testu hau estreinako aldiz zure eskuetara?

Itzulpen honen sorrera hasten da lehenik eta behin Tamaceko aferaren leherketarekin. Niri oso kuriosoa egin zitzaidan Frantzia moduko herrialde batean, zeinean kulturari hainbeste garrantzia ematen omen zaion, jendea espetxeratzea liburu bat idatzi izanagatik. Garai horretan Montpellierrreko espetxean nengoen, eta oso lagun egin nintzen espetxe horretako eskolako zuzendariarekin. Berak ezagutzen zuen liburua, eta ez hori bakarrik, baita ere liburuaren enbrioia dela esaten duten **Tiqqun** taldea. Horrez gain badaukat oso literatur zalea den osaba bat, ni Frantzian espetxeratua egon naizen bitartean literatura eta ezkerreko mugimendu frantsesaz asko interesatu dena, asko elikatzen ninduen espetxealdian zehar. Guzti horren eta Zigor Garro ezagutzearen konfuzioa bat izan zen beraz. Oso kuriosoa izan zen, beti esan izan dut ni noanean nire osaba badatorrela bueltan: espetxean nengoen kide batekin hizketan zelan lehertu zen afera eta interesgarria izango zela liburu hori izatea. Une horretan bertan osaba dagoeneko bidean zegoen eta liburua fotokopiatua jaso nuen. Hor sortzen da lehenengo kontakua liburuarekin berarekin.

Eta nola iritsi zineten Zigor Garrok eta biok elkarrekin itzultzera?

Montpellierrren irakurria nituen liburua eta haren inguruak. Alain Brossat filosofo frantsesak *Tous Coupés Tous Coupables* testua atera zuen adibidez, oso kritikoa intelektualitate frantsesak aferarekiko izan zuen jarrerarekin. Montpellierrretik Fresnesera trasladatu nindutenean ezagutu nuen Zigor Garro. Oso enkontru kuriosoa izan zen. Kalean berez zure antzeko kezak dituen norbait topatzea zaila bada, kartzelan are gehiago. Fresnesen euskaldunak elkarren ondoan daude, lehenengo gauean leihotik leihora hizketan Zigor deskubritu nuen. Ni Tiqqunen inguruko buruhausteekin nentorren eta derrepente ondoko leihoan buruhauste berdinak zituen tipo bat topatu nuen. Erreferentzia ugari konpartitzen genituen, sentsibilitate bat eta adiskidetasun bat sortu zen hor, elkar elikatzeko beharrak bultzatutakoa. Bertan egon nintzen hamar egun eta beste espetxe batera bidali ninduten. Halako batean Zigorri gutun bidez proposatu nion testua itzultzearena, edukiak gure hizkuntzan egon beharko lirakekeela pentsatuta, eta horrela hasi zen itzulpenaren proiektua. Lagun baten bitartez Txalapartako Mikel Sotorekin harremanetan jartzea lortu genuen, proiektua interesgarria iruditu zitzaion eta aurrera egin genuen.

Bi kartzelen artean lanean prozesua asko luzatuko zen.

Guretzat ez zen lan bat, behar bat baizik. Lau eskutara egin genuen eta distantziarena gainditzearena lortzea izan zen, pazientzia izan zen gakoa. Gutun bidez elkar trukatzeko genituen testuak. Egiten genuena zen nik neuk lehenengo itzuli, Zigorrek beste buelta bat eman, eta ostera zuzenketak zuzenketekin bildu... Askotan traumatikoa zen, ordu asko sartzen genituen itzultzen gero bestearen 'bapuleoa' jasotzeko. Gainera ez gara profesionalak, niretzako lana deskubrimendu totala izan zen, dena intuitiboki egin genuen, Euskal Gramatika Osoa eta Ibon Sarasolaren hiztegia ondoan eta Xuxen ordenagailuan, horiek ziren erreminta bakarrik. Batzuetan hartu-eman gogorak izaten ziren zuzenketak egiterakoan, baina nik uste dut biok eduki dugula gaitasuna umildade ariketa bat egiteko, elkarren iradokizunak onartzeko. Umiltasun eta pazientzia puntu hori barik ezinezkoa izango zen lan hau burutzea. Liburuak berak aipatzen dituen afinitateen elkartzeko hori izan zen hain zuzen ere Zigor eta bion artean gertatu zena, leihotik leihorako afinitateen eta inkiertuteen elkartzeko bat.

Tresna baliagarria topatu zenuten liburuan esperientzia propioen inguruan gogoeta egiteko?

Nik ibilbide militante bat izan dut, oraindik jarraitzen duena baina beste manera batean. Bai sentitu izan ditut militante eta pertsona bezala gabezia batzuk, militantzia estruktural eskaintzen zidana baino zerbait gehiago behar nuela ikusten bainen. Iruditzen zait liburuak nire inkiertute edo galdera hori zelanbait erantzun ziola, hierarkien kontuarekin, sarearen nozioarekin... Sarearen nozioa kartzelan deskubritu dut: jendearekin elkar trukatzeko, modu horizontalean eta norabide askotakoan. Liburu honetan hori teorizatua azaltzen da. Frantziako situazionistak asko irakuri ditut kartzelan, liburuan haien oihartzuna aditzen da argi eta garbi: espetxe frantziarrean sartzerakoan giltzapetze erabatekoan askatasun erabatekoaren melodia horrek erakartzen zaitu.

Liburua hasteko eta behin Frantziako gertaerak ditu abiapuntu, baina zein neurritan hitz egiten

du Frantziari buruz baino munduari buruz?

Frantziako gertakariak hartzen ditu paradigma moduan baina bere intentzioa irakurketa global bat egitea da. Liburu oso frantsesa da erreferentzietan, igual horrek gehitzen dio zailtasun puntu bat ulertzeko garaian, gu saiatu gara hori zelan baita aintzen. Sekulako arazoak izan nituen adibidez 'chibani' bat zer den deskubritzeko, eta zelan deskubritu nuen? Patioan galdetzen, 'chibani'ak patriokoan aitona baitira, aiton arabiarak. Paradigma bezala hartzen ditu beraz 2005ean bazter auzoetan egon ziren altxamenduak, edo erretze orokorrak. Gero etorri dira Europan, Londresen edo Grezian, egon diren errebeltak. Intuzio politiko itzela demostratu du liburuak. Hemendik bost bat urtetara egongo diren barrikadetan jendeak esku batean harria eta bestean liburu hau eramango du. Gauzak erakusteko unean azaltzen diren kontzeptu batzuk oso dogmatikoak eman ahal dute, baina batzuetan gauzak ikusteko exajeratu behar da, exajerazio horren ezaugarri batzuk neure baitan topatu eta haiek ulertzeko. Frantzian kokatuta dago baina egungo egoerak orokortu ditu bertako tesiak, egoerak berak frogatzen du bere izaera global hori.

Modu anonimoan dago sinatua, liburuaren filosofiarekin bat doan balio erantsia da hori, edo arriskuak ekiditeko ezinbesteko ezaugarria?

Liburuaren beraren filosofia da anonimotasuna. Anonimotasuna jarrera politiko bezala hartzen du. Liburuak aldarikatzen duena siglen gutxiestea da, sortu behar baldin badira siglak sor daitezela barregarri uzteko siglen izaera bera. Nik uste dut publikotasunaren kontra doala batez ere kontrolatua ez izateko, baina baita ere erreferentzia bat izatea ekiditeko. Liburu honek erreferentzialtasun denak kentzea planteatzen du, erreferentziak berak hierarkia sortzen duelako. Berez, geure izenak liburuaren azalean bertan agertzea niretzako inkongruentzia da, egoarentzat noski polita da norbere izena portada batean ikustea, baina egia da liburuaren filosofiaren kontra doala. Espetxean egina dagoen itzulpena dela aldarikatzea ere bada, horrek badu berez bere balioa, baina berez ez litzateke agertu behar izenik, ez horren agerian behintzat.

Gaika egiten da gogoeta neurri handi batean, nola dago egituratua liburu funtsean?

Lehenengo zazpi 'zirkulu' aipatzen dira, kapituluka. Lehenengo zirkulua norbanakoaren oinarriko niaren gainbehera da. Gero aipatzen da familia edo bikote sistemaren gainbehera... funtsean norbanakoa gaur egun osatzen duen zutabeei kritika egiten zaie, kritika brutala, esanez gurea izaera ortopediko bat dela, makuluz betetako gizakiak garela. Liburuaren bigarren zatian egoerari nola aurre egin proposatzen da. Entzun izan dut hasierako zatia nahikoa iluna dela, ez duela esperantzarako tarte askorik uzten. Nire ustez liburuak osotasunean bai uzten du tarte hori, baina egia da lehenengo zirkulu horretan egiten duen erretratu ez dela batere erakargarria. Liburu ez da soilik zorrotza status quo-arekin, baita ere status quo-a eraldatu nahi duten horiekin ere, haien mugak salatuz. Nolanahi ere, zirkulu bakoitzeko azkeneko paragrafoan beti dago 'baina' bat, hondamendi honetan hondamendiak berak aukerak sortzen dituelako, kapituluaren bukaerak beti bultzatzen zaitu jarrera aktibo bat izatera.

Liburuaren bigarren atalean nola erantzun egoerari, nola antolatu, horretan sartzen da. Gainera Euskal Herrian asko gabiltza hitz egiten horretaz. Liburuak aipatzen du oinarri bezala komuna, Pariseko komuna. Komunaren zentzu kolektiboa baina lokala. Iruditzen zait gaur egun Euskal Herrian sortzen ari dela mugimendu bat auzolana berreskuratzeko.

Liburu honek jomugan jartzen ditu status quo-a mantendu nahi dutenen baina baita ere kontra egiten diotenaren jarrera. Non kokatu daiteke ideologikoki, kokatzen ahal bada?

Liburu justu kokatzearen kontrakoa da, edozein etiketatzeren kontra, baina badaude erreferente batzuk. Ni ez naiz aditu bat, nire jakintza umil honetatik hitz egiten nabil batez ere intuizioz. Situazionismoaren oihartzunak badaude, baina ez da hori bakarrik, baita filosofo batzuen eragina, Giorgio Agamben-ena adibidez, Alain Badiou-ren subjektu politikoa... erreferente totala Pariseko komuna da. Zaila eta murriztailea da etiketak jartzea, baina nire ustez badauka ere bere ikuspegi libertarioa, hierarkiaren errefusa horrekin, sarearen nozioarekin...

Status quo-a zalantzan jarri nahi dutenen artean, deigarria egiten zait deshazkunderari emandako egurra.

Bai, baina nik uste dut deshazkunderaren kontzeptuari baino kontzeptu hori erabiltzen duen militante mota bati ematen diola egurra, ez iraultzari, iraultzaile omen den jende bati edo erakunde batzuei baizik. Nik uste dut deshazkunderaren ideia ez duela gutxiesten, liburuaren filosofiaren baitan lokalitasuna eta erlazio hurbil horiek erreibindikatzen dituelako, eta nik uste dut deshazkunderaren oinarrian ere badagoela hori.

Nik neuk ere jaso dut egurra, militantzia modu nahiko monolitikotik natorren heinean, baina segun zelan hartzen duzun kritika hori izan daiteke zirikatzaila aurrera jotzeko eta zirikatzaila zeure buruari buruz gogoeta egiteko. Mugimendu militantei egiten dien kritika gogoeta benetan egiteko modu bat iruditzen zait. Frantziako bazter auzoetan gertatu ziren errebeltetan ezker mugimendua 'missing' egon zen, ez zekien gertatutakoa nola hartu ere: ze ostiatan dabilta gazte hauek ez dabiltzala estamentu politikoak erretzen, bizilagunaren kotxea erretzea ekintza politiko moduan erreibindikatu daiteke? Horrek Frantziako ezker mugimendua jokoan kanpo harrapatu zuen eta nik uste dut hori sartzen diola kafi: zuen teoriakin urundu zarete teorizatzen ari zareten horekiko. Niri neuri aportatu didana militantziaren izaera lokala da, zu zaren lekukoa zara eta eragin behar duzu zaren leku horretan, bestela egitura orokorrak eta estruktura globalak zapalkuntzaren esentzia izan baitaitezke.

Oso modu agerikoan egiten du merkatuari iruzur egitearen alde, lapurretaren alde... ez da oso mendebaldekoa hori, planteatzen dena ez da berez oso burgesa? Afrikan egingo litzateke horrelako aldarrik?

Nik uste dut, eta Afrika aipatu duzula, han kalean oinarrian ematen diren hainbat egoera hemen oraindik irudikaezinak direla. Hala ere bizi gaituen krisi egoera orokor honen erdian interesak edo beharrak berak sortzen dituen erlazio horiek erreibindikatzen ditu liburu honek. Ikuspegi oso mendebaldarra du bai, baina hor goraipatzen edo aldarrikatzen dituen hainbat jokamolde bai ematen dira beste leku batzuetan behar gorria dagoelako. Adibide bat jartzen du: etxe batean argindarra doanean sortzen diren erlazioek pista asko ematen dituzte, kolektibotasunaren zentzu hori... hemen oso zaila da argindarik gabe gelditzea, baina beste leku batzuetan ez dago argindarik, beraz oso mendebaldarra da baina hartzen ditu hain mendebaldarrak ez diren tokietako erreferentziak.

Lehenengo ataletan kritika zehaztasun handiz egiten du, baina proposamenak egiteko tenorean ez da abstrakzioan jausten?

Hori da filosofiaren tranpa, nik uste dut liburuak ardatzak ematen dituela, oso kontu orokorrak aldarikatzen

dituela gero haiek modozberdinatzen bameratzeko. Hau da, zuk estruktura konkretu bat erreibindikatzen baduzu aldi berean beste batzuei bidea ixten diezu, liburuaren zentzua eta aldarrikapena uhin baten moduko mugimendua izatea da: uhin bat zerbait abstraktua da baina izaera abstraktu horrek berak laguntzen du zabaltzen. Liburuak asko aldarrikatzen du sentimendua, afektibitatea; oso gauza abstraktuak dira, baina sentimendu eta afektibitate horrek mugimendu bat sortzen ahal du eta oso ondorio konkretuak eduki. Adibide moduan, Batzorde ikusezinararen inguruan ibili den jende batek parte hartu zuen 15Mko Bartzelonako mugimenduan; duela gutxi haiekin egon eta esplikatzeko zuten zelan okupatu zuten hiru mila pertsonen Bartzelonako banku zentrala, twitter bidez lotutako hitzorduan. Oso gauza abstraktua da, zelan mugitu daiteke hainbeste jende? beraiek zioten egon zela ekintza konkretu horren inguruan gune bat non afektibitateak sortu ziren, afektibitate horietatik abiatuta eraiki ziren erlazio konkretuak eta horietatik etorri zen Bartzelonako banku zentralaren okupazioa, zera abstraktu horrek eragin ahal du komuna bat sortzea edo manifa bat muntatzea. Oso abstraktua izan daiteke baina ondorio konkretuak bultzatzen ditu.

Liburuak abstraktutasunaren kontu horrekin batera izaera efimeroa aldarrikatzen du, eta hori da nire militantzian arazo gehien sortzen didana... berak ez du aldarrikatzen estruktura bat, egonkorra dena eta abar. Egon ziren Frantziako liskarrak, momentuko kontu bat izan zen: gertatu ziren, desagertu ziren eta ez da antolamendurik ez ezer sortu ondoren. Liburuak estrukturarik gabeko mugimendua aldarrikatzen du, mugimendu horrek sortuko ditu momentuak, izan daitezkeenak liskarrak, okupazioak... baina ez du zertan instituzionalizatu, mugimendu hori desagertzen bada gaur egungo egoerak eta status quoak berak sortu dituen gabeziak eragingo du beste zerbait sortzea.

Baina ez baduzu mugimendua antolatzen, ez baduzu transmisio lana egiten, komunikabideek manipulatu eta liskar hutsean utz dezakete... azken batean, liburu honek berak gertatutakoa antolatu eta teorizatzen du, azkenean beti behar baita zer edo zer...

Bai, baina liburuak esaten duena zera da: egoera hain da eskasa -eta nik uste dut ez dela ezkerreko pentsalarien kontua bakarrik, eskuineko pentsalariak ere badabiltzala esaten ziklo aldaketa behar dela-egungo egoerak hartu duen noranzkoan haustura bat datorrela. Ni ez naiz aditua, baina hori azaltzen da egoeraren inguruko hamaika irakurketa politikotan, zibilizazio haustura bat datorrela, giza antolamendu era baten haustura. Duela gutxi irakurri dut nonbaiten, batzuek esaten duten munduaren akabera horretan hemen ez direla lurra arakalako irekiko, ez dela mundua bukatuko; zibilizazio erromatararen akaberarekin aldera daiteke, hark ez zuen munduaren akabera ekarri giza antolamendu baten akabera baizik. Mundua oihuka dabil honek ezin duela horrela izan. Liburuak berak aldarrikatzen duena da aldaketa berez datorrela, kontzientzia duenak egin behar duena da bultzatu eta lagundu momentu hori gerta dadin.

Beraz, 'ezer ez dirudi matxinada bat baino gertagaitzago, baina ezer ez da beharrezkoago'.

Horrek laburbiltzen du liburuaren filosofia guztia. Liburuak dio hau gertatzeko liburu hau ere ez dela behar, liburuak berak bere buruaren kontra egiten du. Ondo dago Heldu den matxinada liburu bezala existitzea baina ez dauka zertan existitu, berdin gertatuko delako.

Liburuaren arrastoa jarraitu duzu ezagutzera eman zenetik? euskaraz berria da, baina jatorrizkoa oraindik presente dago eztabaidetan?

Nik uste dut liburu bera eragin zuen mugimenduak gainditu duela liburu bera, eta hori da logikoena. Liburuak izan liteke uretara botatzen duzun harria bezalakoa, uhin horrek berak uretara botatuko harria gaintzen du. Funtsean zuk ez duzu eztabaidatu behar liburuaren inguruan, zu joan behar zara zure etxepeko lagunarekin hitz egitera, eta galdetu zer moduz dagoen. Haustura une batera heltzen gabezia eta estatuak eta instituzioak haustura hori gaintzeko galdogaiak dira, era berean indibidualki haustura gune hori gaintzeko gutxiegi gara, beraz zerbait gaintu ahal izatekotan kolektiboki gaintu beharko da. Eta horra nabarmentzeko baloreak: izaera kolektiboa, izaera lokala, praktika eta teoria ezin direla banatu, hori da aldarrikatzen duena liburuak. Eta hor daukagu, Euskal Herria bueltatuz, auzolana bera. Auzolana antolatzea gaur egungo teknologia berrien garai honetan, adibidez.

Amaitzeko, liburu honetatik at: Hitzen Uberanen zure testuak jaso genituen preso zinelarik. Maila pertsonalean bazabiltza zerbait idazten?

Momentu honetan badaramazkit sei hilabete kartzelatik kanpo. Ez zait gustatzen 'libre' esatea, batzuetan kartzela kalearen kontrapuntu modura jartzen dugulako: kartzelan dagoena ez dago libre eta kartzelan ez dagoena libre dago. Azken hilabeteetan konturatu naiz kanpoan ere unformatuak eta estruktura zapaltzaileak existitzen direla, agian modu sotilagoan. Baten batek esan zuen idazteko eseri aurretik altxa behar dela bizitzeko, eta azken aldi honetan sartu naizen zurrumbiloek ez didate ematen patxada, gogoetak idazteko bai, baina ez gauza trinkorik. Elkarrizketa agurtzeko, azkenaldian idatzi dudak olerki moduko gogoeta irakurriko dizuet. Gainera oso ondo doa liburuarekin, denboraren inguruko gogoeta bat:

Denbora

Denbora badoa eta badator

denborak ateak ixten ditu edo ateak irekitzen ditu

eta gu hor gabiliz

denboraren joan etorrian

denboraren ateak itxi eta zabalduz